METALA ELA

# GIPUZKOAKO METALEKO HITZARMENA

**NEGOZIAZIO MAHAIA/ 12. BILERA** | **DONOSTI, 2010ko IRAILAK 14**

### GUREGATIK, BERAIENGATIK...

**Gipuzkoako Metaleko Hitzarmenak bermatzen dituen lan baldintzak, Estatuko gainontzeko herrialdeekin alderatuz, askoz ere hobeak dira. Soldata altuagoak (7.000 euroko aldea lan-kategoria batean), lanordu gutxiago (batazbeste, urteko 58 lanordu gutxiago), kalteordain askoz duinagoak arrazoi objektiboak argudiatuz gertatzen diren kaleratze kolektiboen kasuetan..., etb.**

Lorpen hauek guztiak oso esanguratsuak direla ezin uka daiteke. Haatik, ez dugu zertan pribilegiatuak sentitu. Gipuzkoako langileoi ez baitigute ezer oparitu. Gainera, Gipuzkoako beharginok ezin dugu ahaztu Ipar Europako metalgintzako langileek dituzten lan baldintzekin konparatuz, geure lan baldintzak dexente kaskarragoak direla. Beraz, bidea dugu oraindik egiteko.

Edozein kasutan, egun bizi dugun garai ilunetan, Gipuzkoako metalgintzako langileok galdera hau egin beharko genioke geure buruai: Gipuzkoan zergatik ote ditugu Estatuko lan baldintza duinenak? Eta galdera honek, eskirol negargarriei gehiegi gustatu ez arren, erantzun bakarra du: Gipuzkoan Estatuko beste toki batzutan baino askoz ere gehiago borrokatu dugulako (guk eta aurreko belaunaldiek) langile moduan dagozkigun eskubideen alde.

Hau guztia aintzat hartuta, orain guri dagokigu Gipuzkoako Metaleko Hitzarmena eta borroka luzeak medio lortutako lan balditzak defendatzea. Orain, beraz, geurea defendatzeko ordua iritsi zaigu; geurea defendatzen dugun heinean, geure seme-alabek ere, etorkizunean, lan baldintza duinak izango dituztela defendatzen ari garela jakinda. Izan ere, talmalgarria litzateke gure belaunaldia Gipuzkoako Metaleko Hitzarmena hiltzen utzi zuen belaunaldia bezala gogoan izatea. Benetan tamalgarria litzatekeelako gure seme-alabak, Estatuko Hitzarmenaren "babespean", 800 euroko mixeriazko soldatak jasotzera zigortzea. Guregatik, beraiengatik, borrokatzeko ordua da.

## ADEGI-ren HITZARMENA,
## *MADE IN SPAIN*

**Metaleko Hitzarmena negoziatzeko mahaia irailak 14an bildu da, Lan Harremanetarako Kontseiluak Donostian duen egoitzan. Bertan, ELA eta LAB sindikatuok gure plataformetan hainbat aldaketa egin ditugu (Iraupena: 2 urte; Soldata igoera: KPI + 1,5%; lan orduen murrizketa: 8 ordu urteko).**

Aldaketa hauekin batera, ADEGI-ri jakinarazi diogu mugimendu hau elkar ulertzea errazteko xedearekin egin dugula, negoziazioa desblokeatzea eta deituta dauden 9 greba egunak egin behar ez izatea dela gure nahia.

Bileran hontan, sindikatuko guztiok (CCOO izan ezin, sindikatu honek ez baitu ahoa zabaldu ere egin bilera guztian zehar) ADEGI-ri egungo Gipuzkoako Metaleko Hitzarmenak jasotzen dituen edukiak errespetatu ditzala eskatu diogu. Hau da, ez dezala krisi ekonomikoaren mamua astindu gipuzkoako beharginen lan baldintzetan murrizketa basatiak inposatze aldera.

ADEGI-k, haatik, ez dio baiezkorik eman gure eskakizun nagusiari, eta ez du inolako proposamenik mahairatu. Gipuzkoako enpresaburuen ordezkariek esan ere esan dute, Gipuzkoako Metaleko Hitzarmenaren inguruan akordio batera ez iristea beraiei bost axola diela. Esaldi horrekin argi asko aditzera eman digute negoziazioa blokeatzea dela beraien helburu nagusia, negoziazio kolektiboaren erreformak herrialdetako hitzarmenak desagertarazi eta Estatu Mailako Metaleko Hitzarmen berri bat inposatuko duelakoan. Hau guztia, noski, gipuzkoako beharginen lan baldintzen kaltetan.

### CCOO ISILIK

**Bilera guztian zehar CCOO sindikatuak ez du ahoa zabaldu; are gehiago, ez dio ADEGI-ri bere jarrera gezurtia aurpegiratu (izatez, maiatzean ADEGI-k proposamen berri bat mahairatuko zuela agindu baitzuen, eta horrekin batera CCOO sindikatuak greba deialdiarekin bat ez egitea erabaki zuen). Gainera, CCOO sindikatuak ez du parte hartu nahi izan LAB, UGT eta ELA sindikatuok Hitzarmenak bizi duen egoeraz hausnartzeko egin dugun bilera. Tamalgarria da, oso, CCOO sindikatuaren jarrera langileekiko.**




## *HAUEK DIRA ADEGI-K NAHI DITUEN ERREFERENTZIAK:*

| HERRIALDE HITZARMENA | URTEKO SOLDATA GORDINA (€) | URTEKO LANORDUAK |
|---|---|---|
| MADRID | OFIZIALA 1ª: 15.257<br>PEOIA: 13.748 | 1767 ordu/urtean |
| MURCIA | OFIZIALA 1ª: 16.456<br>PEOIA: 15.827 | 1759 ordu/urtean |
| LA RIOJA | OFIZIALA 1ª: 16.613<br>PEOIA: 14.641 | 1750 ordu/urtean |

(Datua: hauek adibide gutxi batzuk dira, eta ez dira adibide txarrenak, Estatuko Herrialdetako hitzarmenei dagokienez)

| | | |
|---|---|---|
| GIPUZKOA | OFIZIALA 1ª: 22.230<br>PEOIA: 20.014 | 1697 ordu/urtean |
| IPAR RENANIA (ALEMANIA) | OFIZIALA 1ª: 29.120<br>PEOIA: 27.734 | 35 ordu/astean (eta oporrak 6 aste) |

# CONVENIO DEL METAL DE GIPUZKOA

METALA ELA

**12ª REUNIÓN DE LA MESA NEGOCIADORA** | **DONOSTI, 14 DE SEPTIEMBRE DE 2010**

### HOY POR TI, MAÑANA...

**Las condiciones de trabajo que garantiza el Convenio del Metal de Gipuzkoa son, en comparación con el resto de convenios provinciales del ámbito Estatal, significativamente superiores. Salarios más altos (diferencias de hasta 7.000 euros en una sola categoría), menos horas de trabajo (una media de 58 horas menos al año), indemnizaciones muy superiores en caso de despido colectivo por causas objetivas..., etc.**

Ciertamente, todas estas mejoras son muy significativas. Pero no por ello debemos sentirnos privilegiados. Nadie nos ha regalado nada. Y tampoco podemos pasar por alto que en Gipuzkoa todavía estamos muy lejos de equipararnos (en cuanto a condiciones laborales) a los metalúrgicos del norte de Europa, a los alemanes, por ejemplo.

En cualquier caso, en un momento crítico como el actual, la gente trabajadora del sector del Metal de Gipuzkoa deberíamos hacernos esta pregunta: ¿Por qué disfrutamos de mejores condiciones laborales que en el resto del Estado? Y al hacernos esta pregunta, la respuesta (por mucho que le pese a la calaña de esquiroles) es siempre la misma: porque en Gipuzkoa se ha peleado muchísimo para conseguir los derechos que nos corresponden (se han hecho huelgas durísimas); porque antes que nosotros, las generaciones pasadas salieron a la calle para exigir que se dignificaran sus condiciones de trabajo y las de sus hijos.

Así que ahora es nuestra obligación defender el Convenio del Metal y las condiciones laborales que se han conquistado en Gipuzkoa después de tantos y tantos años de lucha obrera. Por eso ahora debemos luchar por nosotros, pero también por los que vienen detrás. Porque sería muy triste que nos recordaran como la generación que se dejó robar todos sus derechos y condenó a sus hijos a trabajar al "amparo" de Convenios Estatales y, en consecuencia, a percibir salarios miserables de 800 euros. Hoy por ti, mañana por ellos.

## ADEGI QUIERE UN CONVENIO *MADE IN SPAIN*

**La mesa negociadora del Convenio del Metal de Gipuzkoa se ha reunido el día 14 de septiembre, en la sede del C.R.L. en Donosti. En el transcurso de la reunión los sindicatos ELA y LAB hemos realizado modificaciones en nuestras plataformas reivindicativas (vigencia: 2 años; incremento salarial: IPC + 1,5; reducción de horas: 8 horas anuales).**

Asimismo, le hemos comunicado a ADEGI que este movimiento debería suponer un punto de partida de cara a acercar posturas, desbloquear la situación y evitar el conflicto que se avecina en las empresas del metal, que están convocadas a 9 días de huelga.

Así pues, todos los sindicatos (salvo CCOO, que no ha abierto la boca en toda la reunión) le hemos pedido a ADEGI, una vez más, que se comprometa a respetar los contenidos del actual convenio del Metal de Gipuzkoa, y no pretenda aprovecharse de una situación de crisis económica para introducir recortes brutales en los derechos y las condiciones laborales de la clase trabajadora.

ADEGI, no obstante, se ha negado a aceptar una negociación en clave de respeto del convenio actual, y no ha realizado ninguna propuesta concreta. Los representantes de los empresarios gipuzkoanos han llegado a decir, incluso, que la posibilidad de no lograr un acuerdo respecto al convenio provincial no les preocupa demasiado, dejando entrever claramente que apuestan por la desaparición del Convenio del Metal de Gipuzkoa, a la espera de que la inminente reforma de la negociación colectiva imponga a los trabajadores gipuzkoanos un Convenio del Metal de ámbito Estatal. Todo ello, por supuesto, en claro perjuicio de las condiciones de trabajo del sector.

### CCOO NO DICE NI HOLA

**Sorprendentemente, durante toda la reunión CCOO no ha abierto la boca, ni siquiera para reprocharle a ADEGI que todavía no haya realizado una nueva propuesta (a pesar de que en el mes de mayo se comprometió a realizarla, una mentira que le sirvió a CCOO para desmarcarse de la huelga). CCOO también se ha negado a participar en la reunión que hemos mantenido LAB, UGT y ELA para analizar el complicado momento que atraviesa el Convenio. Triste papel el que viene jugando CCOO en esta negociación.**




### LAS REFERENCIAS PROVINCIALES QUE QUIERE ADEGI:

| CONVENIO PROVINCIAL | SALARIO BRUTO ANUAL (€) | HORAS DE TRABAJO |
|---|---|---|
| MADRID | OFICIAL 1ª: 15.257<br>PEÓN: 13.748 | 1767 horas/año |
| MURCIA | OFICIAL 1ª: 16.456<br>PEÓN: 15.827 | 1759 horas/año |
| LA RIOJA | OFICIAL 1ª: 16.613<br>PEÓN: 14.641 | 1750 horas/año |

(Nota: éstos son algunos ejemplos, y no los peores, de los convenios provinciales del metal en el ámbito Estatal)

| | | |
|---|---|---|
| GIPUZKOA | OFICIAL 1ª: 22.230<br>PEÓN: 20.014 | 1697 horas/año |
| RENANIA DEL NORTE (ALEMANIA) | OFICIAL 1ª: 29.120<br>PEÓN: 27.734 | 35 horas semanales (y 6 semanas de vacaciones) |